

GOGOA KIROLEAN

XVII. Jardunaldiak

GOGOA KIROLEAN

XVII. Jardunaldiak

© Mendebalde Euskal Kultur Alkartea

ISBN: 978-84-15508-33-5

Lege Gordailua:

Discinua, maketazioa eta argitalpena: Erroteta - www.eroteta.com

Inprimaketa:

Printed in UE.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	
Kaxildo Alkorta	7
Jarduera fisiko egokitua eta elikadura: osasunaren bidean	
Aritz Urdampilleta, Iker López, Juan Ramon Fernández-López, Asier Vicandi-Elorriaga, Sonia Oceja Salazar	13
Abel Barriola: Kirola euskaldunaren izaeraren ezaugarrietakoa da	57
Kirola bizitzan	
Iratxe Ibarra	71
Koikili goi mailan euskara eta kirola	
Juan Luis Goikoetxea	85
Gure artalde letraduna	
Jose Joakin Gallastegi.....	97
Maider Unda kirolari olinpikoa	
Juan Luis Goikoetxea	139
Euskara mintzagai. Tostetatik telebistara	
Ibon Gaztañazpi.....	153
Kirola, euskara eta komunikabideak	
Pedro M. Goikoetxea	165
Jose Ramon Uriarte "Katxin": Euskaldunak munduan geure kirol baten bidez	
Kaxildo Alkorta	177
Euskerazko kirol kazetaritza gaur egun Bizkaian. Argi-ilunak	
Dabi Piedra	185
Kepa Mallea	
Mireia Uranga.....	195
Urrezko luma	
Juan Luis Goikoetxea	203

Aurkezpena

Kaxildo Alkorta

Gorhua garrian ta gogoa kirolan ("Los refranes y sentencias de 1596")

Galdera hau egitea be...! Baina, bai, ausartu egingo naz: "Irakurri dozue Nikolas Ormaetxea "Orixe"ren *Euskaldunak* poema?

Nik neuk dana ez, zati batzuk bai. Askotan ulergatxa da –ni nirea esaten ari naz, eta Orixe berak be badino hori–, baina ulertu ezker, bikaina. Irakasle batek esaten euskun liburuetakoa interesgarriena askotan hitzaurrea zala. *Euskaldunak* poemaren hitzaurre biak be (*Lenengo argitalpenaren itzaurrea* eta *Prólogo a la versión castellana*) bitxi ederez hornituta dagoz. Orixek, hitzaurreetako hausnarketa laburretan, dino, besteak beste, euskaldun jente xehe eskolarikoaren, baina beren hartan jente jakituna danaren berbaeran idazten saiatu zala. Adibide bi:

"Au baino au euskera ohea danik, bearrago danik, ez naiꝥ asiko, baina gauza bat gogora zait: euskerarik elkartuena Ameriketan egiten dutela nago, ta erriak beure buruz ipintzen dun oiñarri au ona dirudit diteken batasunerako edo diteken elkartasunerako..." Eta beste hau:

"... El P. Justo M. Mocoora, el mejor conocedor actual, quizá, del idioma vasco, encontró algunas o bastantes oscuridades en primera lectura. En la segunda tuvo por intérprete a su señora madre, mujer iliterata, que le fue aclarando satisfactoriamente todos los puntos y aun dándole variantes folklóricas. "Creí ser

—me decía— el más vasco de mi casa, y me he encontrado vencido por mi madre."

Gure osaba bati entzun neutsan, hamazazpi urte-edo nituala, liburu horretan estropadak aitatzan zirala eta bertso baten hau inoala:

"Azken txanpa du Getarik. Ua
itsasoa jan bearra!
Zerura arraunak jaso ditute,
erre dute lengo marra.
Getari ixillak lau aldetara
zabali du deadarra.
Amabost arraun-ukaldiz gero
sartu zaie zaraustarra."

Bertso horrek beste batzuk irakurtzera bultzatzen ninduan, eta ulertzean edo ulertezin jatazan zatiak gaztelaniazko testuaren laguntzaz aditu —ni ez izan Justo M. Mokoroaren ama—, euskeraz barriro irakurri, gustau eta euskal literaturako liburu handietako honen barri samar batzuk behintzat baditut.

Estropadazko bertso multzo polita dau "Euskaldunak" poemak. Hona beste bertso oso edo zati honeek be:

"Donostiarrek etzuten, ustez,
etsairik Getarirekin;
Zumai ta Zarautz janik zeuzkaten
barran agertzearekin...."

"Oraingoan ez da Bizkaia'tik
bildur daragin Ondarru
—Donosti'rekin aurren-urteko
zorrak ordaintzen lana du—.
Aren itzala sumatu bage
lasai Donostia'k oi..."

Andik bitara Zumaia an dute (getariarrek):

Donosti andik seitara:
kukuak oker egun artan jo;
ók bear zuten bandera.
Ola diote, dirurik egin
ez dutenek*; buruz béra
egin dutenek; sakel-agoak
ustu zaiizkie batera".

(*dirurik egin ez dutenek = apusturik egin ez dabenek)

Estropadez aparte beste joko honek ditugu poemak: "ari-talka", "sataia edo balanka", "aizkora-jokua", "antzara-jokua", "laisterketa-apustua", "sega-apustua" eta "apezen pilota jokua".

Zertan datzan bakotxa argi azalduta dago; lehiaren ingurumariak, barriz, guztiak bizi-bizi, eta horreetan *apustua* (*postura*) eta *jokua*, berba horreek dira nagusi. Desafio-oihuak egin edo erronka jo eta apustua, jokoa, etorren ondoren, eta gero... gerokoak. Hona handik eta hemendik jasotako beste bertso honek:

"Larraun guzian gizon bizardunik balitz..."
oia bota dute oi duten arrandiz.
Orren begira zegon Uitziarra, aldiz,
bera autsi dezakenik ez dagola iduriz."

"-Uztar-beirik onena, leitzarraren alde!
-Isillik ago, mutil; itxi zak ákalde;
iri joka nezaikek baiña... ba duk andre;
ez diat nai gaisoa negarrez ikuste."

"Batak urde ernari, besteak artantxu,
ál dunak ál duana bero du jokatu.
Beruete'ko Txortxi'k marka dizu urratu:
artalde ta ária gal —larogei bat buru—."

*Zenbait, buruz apal, eta zenbait buru-zuti,
onen galduz gutxi du arek irabazi.
Laister etor dirua berêla joaki...
beste dema sortzeko ez dabiltz urruti."*

Jokoa, apustua, beraz. Sariak, txapelketak, erakustaldiak eta holangoak ez ziran orduko ohitura osoak, geroagokoak dira. Ez zan gaur eguneko babesle, suspertzaile, prestatzaile, kirol-teknikari, prentsaurreko eta antzekorik be..., horrelako berbarik ez behintzat. Bai galerak, arin lurruntzen ziran irabaziak, etxe askotako hondamendia, negarra eta zorrak, tongoak, tranpak, marroak, amarruak... Dan-danak jaso ezta be liburu lodi asko bat baino gehiago beteteko beste bai!

Gaur egunean be gertatzen dira, badira, horrelakoak, baina ez gara sasoi bateko pentsamoldekoak. Kirolarien ingurumaria asko aldatu da, baita geure-geure diran kirolean be. Orain arte hemen irakurritakoagaz zerikusiriko gauza gitxi entzungo dituzu jardunaldi honeetan; irakurri be, ez dozu idatzi-zati luzerik irakurriko liburu honetako artikuluetan. Aldaketa handia izan da danean. Kirolarien presakuntzari eta janariari jagokezanak itxi egingo ditugu, pasadako aipamen nimiño hau besterik egin barik.

Izenburuko "*Gorbua garrian ta gogoa kirolan*" dala-eta, esaldi horretan okerrik ez badago, *kirola* berbeak *a* berea dau; hortaz, aldi hartan (1596), dirudienez, *kirola* esaten eben, ez *kirol*.

Orixeren *Euskaldunak* poeman be agertzen da berba hori: *itsas-kirolak*, hain zuzen. Ondoren kontauko dodan hau bide batez –tatarrez, beharbada– ekarria da:

Hizkuntza erromaniko eta klasikoetako irakasle batek eskolan esanda aspaldi entzuna dot –eta nigaz batera baziran beste hogeita hamarren bat ikasle han orduan– euskerazko *kirola* berbea domeketako eta jaietako mezetatik etorria izango zala. "Ez nintzateke harrituko" edo "nire ustez" inoan. Astegunetan lanean jardun ondoren, domekak eta jaiegunak ilusinoz hartzen ziran, eta, jakina, egun horreetan meztara joan beharra egoan, eta mezatan "*kirie eleison*", "*kirie*" eta "*kirie*", jai giroan, handik urtendako lagunarte alai eta patxadatsuaren edo ko-

pautxuaren eta pilota eta bestelako jokoen pozez..., alkarregaz lotu hori guzti hori –*kirie-kirieak* eta jai, olgeta eta lagunarte alai– eta *kirol* hitza hortik halantxe sortuko zala edo, hala sortua izan ei daitekeela edo.... Erositako prezioan saltzen dot. Ez dala horrela? Ez da inoren kalterako, behintzat.

Honainoko guztia zer dala-eta motiboa? Hauxe:

Euskerea eta kirola, kirola eta osasuna, kirola eta bizitza, euskerea, kirola eta komunikabideak..., ingurumari horretakoak ditugu liburu txo honetan bildutako artikulua, kirolarien edo kirolarekin zerikusi handia daben lagunakandik jasoak. Liburu honetako beste ikuspuntutik, beste pentsakeretatik azaldua dago. Horregatik aurreko azalpenak.

Irakurleak laster antz emongo deutso artikulua batzuk hurbilagoak dirana txostenen zorrotasunetik, beste batzuk libreagoak eta badirala alkarrizketa antzekoak be.

Mendebalde Kultura Alkarteak antolatu dituan jardunaldietako XVII. honeetako partaide bakotzak bere gaiari eutsi deutso eta gaitik gaira aldea dago. Horretaz aparte, bakotzak bere ikusteko eraz eta bere adierazteko moduz aurkeztu deusku berea, eta, kirolariak ez diranez aspirinak, ez diranez danak bardinak, bada, nork bere marka ezagun dau.

Kirola adar askoko zuhaitza da, bai behintzat Euskal Herrikoa. Hamen bertan sortutako kirolak ugari izanda be, kanpotik etorri edo ekarritako beste asko eta asko geure-geure egin ditugu, eta, ezin ba, ekarri jardunaldi honeetara kirol guztietako eta bakotzeko aditu edo ordezkari bakar bat be, ez eta kirol guztietaz berba egin be, jakina. Halandabe, idazki honetan aitatur eta programan zabaldua dagozan gaietako zenbait jakingarri argi, txukun eta era bizian azalduko talde aditua eta iaioa osatzen dabe aurtengo hizlariak. Honeek dira:

Juan Ramón Fernández-López, Aritz Urdampilleta eta Iker López, kirolgaitan irakasleak eta adituak.

Abel Barriola, leitzarria, pilotari profesionala, txapel askoren jabea

Iratxe Ibarra, markinarra, afizionatu mailako paletaria eta bertso-laria

Koikili Lertxundi, otxandiotarra, Athletic-eko futbolaria izana, gaur egun futbol entrenatzailea; kirol mundua euskaraz blai egiteko plan-ekintzetan dabilena

Jose Joakin Gallastegi, Zaratamoko semea, txirrindularitzako aditua, Bilboko Udaleko Euskara Zerbitzuko burua

Maidier Unda, Olaetako (Aramaio) alaba, Joko Olinpikoetan brontzea lortutakoa, nekazari-artzaina

Ibon Gaztañazpi, Orioko traineruko arraunlaria 20 urtean –oraintsu arte– eta kazetaria

Pedro Mari Goikoetxea, lezamarra, euskal kazetaritza barriaren sortzaile eta eratzailetakoa

Jose Ramon Uriarte "Katxin", bere sasoiaren puntako pilotari puntakoa, zesta puntaz edo *jai-alai*az euskal arnasa munduan zabal-tzen ibilia, eta

Dabi Piedra, euskal komunikabide barriak martxan jarriak hartu dituan kazetaria.

Soinketako teknikariak (3), pilotariak (eskuzkoa, paletazkoa, zez-tazkoa), futbolaria, txirrindularitzan aditua, burrukalaria, arraunlaria, kirol-kazetaritzan adituak (kazetaritza hori sortzen jarduna bata, kazetaritza barri horretan hazia eta hezia bestea). Zalantza barik, egingo neuke talde honetakoek euren hitzaldiotan esandako eta liburu honetan idatzitako gauza asko eta asko bat datozela jardunaldiotan gai ez diran kirolez esan eta idatzi daitekezenakaz.

Liburuxka eskuartearen dozun horrek, baietz atseginez irakurri dana ez bada, bai ia dana behintzat. Ezetz? Bota!

JARDUERA FISIKO EGOKITUA ETA ELIKADURA: OSASUNAREN BIDEAN

¹Aritz Urdampilleta, ¹Iker López, ¹Juan Ramón Fernández-López, ¹Asier Vicandi-Elorriaga eta ¹Sonia Oceja Salazar

¹ KIROLENE. Public Centre for Sports Education. Department of Education, Language policy and Culture of the Basque Government, Durango, Spain.

Laburpena

Jarduera fisiko egokia eta elikadura dira bizitzan osasun ona edukitzeko faktorerik garrantzitsuenak. Elikadura desegokia eta jarduera fisikorik eza, barriz, kaltegarriak dira hipertentsioa, hipergluzemia, hiperlipidemia eta obesidatea eragiten dabezelako, baita gaixotasun kronikoak be, besteak beste, minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak eta diabetesa.

Urtean 2,7 milioi lagun hiltzen dira behar beste fruta eta barazki ez jatearren, eta 1,9 milioi lagun jarduera fisikorik ez egitearren.

Sarrera

Jakin badakigu gaur egungo gizartean prebalentzia handiko gaixotasunak (diabetesa, obesidatea, minbizia, etab.) ugarituz doazela, eta, zuzenean edo zeharretara, guztiek daukiela loturaren bat ohitura onekoak ez diran jan kontuek azala eta egoneko bizitzagaz (Aranceta, 2000).